

Euskal Aditzari Begira

Adizki jokatuak -I-

Aspektua

Egunerokoa

Mamuairena

Aldia eta modua

Pertsona eta numeroa

EAB 6

EUSKAL ADITZARI BEGIRA

gure aditza modu erakargarrian aurkezteko beste ahalegin bat da.

Gaurko bitarteko digitalak baliatuz,
euskal aditza pantailara eraman nahi dugu;
eta pantailatik, ikusle-ikaslearen hizkuntza-corpusera.

HELBURU NAGUSIA

HIZKUNTZA ZUZENTASUNEZ ERABILTzea

«Hizkuntzaren elementu formal eta mekanismoei buruz hausnartzea, haren maila fonologiko, morfosintaktiko, lexiko-semanticoko eta testualetan, eta mezuen ekoizpen eta harrera baldintzei buruz, komunikazioko gizarte-testuinguruetan, berezko ekoizpenak arautzeko gaitasuna garatzeko helburuz».

«Hizkuntzaren irakaskuntzak *Euskal hizkuntza eta literatura* arloaren mugak gainditzen ditu, hizkuntza ia curriculum osoan irakatsitako ikaskuntza guztien euskarri delako, eta eskolako ikaskuntza-prozesuak, neurri handi batean, hizkuntza-gaitasunaren garapenaren mende daudelako».

Oinarrizko curriculum-diseinua

EUSKAL ADITZARI BEGIRA

Adizki jokatuak -I-

AURKIBIDEA

Aspektua.....	3
Egunerokoa.....	7
Mamuarena.....	9
Aldia eta modua.....	11
Pertsona eta numeroa.....	15

IZENA:.....MAILA:.....

Aspektua

aspektu burutua

Bulegoan

KRISTINA —Gaur, Garbiñeren denda aurretik **pasatu** naiz eta Xabier **ikus**i dut.

KOLDO —Nik telefonoz **deitu** diot, baina ez dit **hartu**.

Xabier sartzen da bulegoan.

XABIER —Garbiñeren dendan **egon** naiz eta **esan** dit gure argazkiak oso ederrak direla. Horregatik **heldu** naiz berandu. Gainera, Garbiñeren dendatik pasa aurretik, makina bat kontu **egin** ditut. Albertori gutuna **idatzi** diot, tren-ordutegiaz **galdetu** dut, hiru txosten **idatzi** ditut...

Bete geroaldiko aspektua erabiliz.

Bulegoan

KRISTINA —Bihar,

KOLDO —.....

XABIER —.....

Aspektu burutua

ikusita nago, joanda zegoen

Atzo gai osoa ikasi nuen; beraz, nik gai horiikusita daukat..... .
Pasa den abuztuan Parisen egon nintzen; beraz, ni Parisen
Pasa den astean inauguratu zuten AP-1 autopista; beraz, AP-1 autopista
Zafonen azkena atzo bukatu zuen; beraz, zuk Zafonen azkena
Larunbatean Auñamendi igoko dugu; beraz, igandean Auñamendi
Herenegun Woody Allenen azkena ikusi genuen; beraz guk Allenen azkena

IZENA: MAILA:

Aspektua

geroaldiko aspektua

Euskarak geroaldia adierazteko, aditz-partizipioari,
-ko edo -go aspektu-markak eranstean dizkio, amaieraren arabera.

Badira, baina, ekintza bat geroaldi hurbilean kokatzeko, beste formula batzuk:
behar izan perifrasiak, -t(z)era joan, -t(z)ekoa(k) izan / ukan, -t(z)eko egon / eduki.

Geroaldia

behar izan

—Arratsaldean, liburutegira joan gaitzke *gizarte* ikastera. (esaten du koadrilako batek)

Jar iezazkiozu *sei* aitzakia liburutegira ez joateko.

1) —Ezin dut. Arratsaldean gurasoekin joan **behar dut** oinetakoak erostera.

2) —.....

3) —.....

4) —.....

5) —.....

6) —.....

Geroaldia

-t(z)era joan, -t(z)ekoa(k) izan / ukan, -t(z)eko egon / eduki

Filma bostetan hasiko da. Orain bostak dira; beraz, filma **hastera** doa.

Bihar mendira goaz Miren eta biok; hau da, Miren eta biok bihar mendira **joatekoak** gara.

Hamarretan kantatuko dute. Hamarrak dira; beraz,doaz.

«Bai» esan duenean, ni ere gauza beranihoan.

Udalak plaza berria egingo duela dio; beraz, udala plaza berriadoa.

Txosten gorriak aztertu ditut; txosten orlegiak dauzkat.

Bi galdera erantzun dut. Beste guztiak dauzkat.

Mikeli ez etortzekonoa.

Ez dakit zer gertatu zaion, zen.

Ez dakit noiz inauguratuko den, iturgintza-lan guztiak daude, oraindik.

Egunerokoa (EGUNERO -orainaldi burutugabea-)

Kristinaren iratzargailuak goizeko zortzietan **jotzen** du. Kristina handik bost minutura **jaikitzen** da. Ondoren, sukaldera **joaten** da eta gosaltzeko jakiak **prestatzen** ditu. Gosaria mahai gainean **uzten** du eta bainugelara **joaten** da. Han bainuontziko txorrota **irekitzen** du ura berotzeko. Ura bero-bero dagoenean **dutxatzen** da. Dutxatu ondoren, esnea **berotzen** du eta mahaiian **esertzen** da gosaltzeko. Kristina, gutxi gorabehera, bederatziak laurden gutxitan **irteten** da etxetik bulegora joateko. Bederatziak aldera **iristen** da bulegora. Soinean jaka badarama, erantsi eta esekitokian **eskegitzen** du. Hotz egiten duen egunetan, neguan batez ere, berogailuaren termostatoari **eragiten** dio. Argiak **pizten** ditu eta ordenagailua martxan **jartzen** du. Ordenagailua kargatzen den bitartean, alboan daukan telefonoa **hartzen** du eta belarrira **eramaten** du, mezurik balego, entzuteko.

Egunerokoa (BIHAR -geroaldia-)

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

Egunerokoa (GAUR -orainaldi burutua-)

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

IZENA:.....MAILA:.....

Gaur, goizeko zazpitan esnatu naiz, eskolara etortzeko. Aurpegia garbitu dut, gosaldut, liburuak prestatu ditut eta, logela ondotik pasatzean, ohea egin gabe neukala ikusi dut. Esadazu,

-Ohea egin dut.

-Ohea egiteko daukat.

Gabonetan auto bat muntatzeko piezak oparitu zizkidatzen. Esadazu,

-Muntatu dut.

-Muntatzeke daukat.

-Muntatzen ari naiz.

Nire urtebetzean liburu potolo bat oparitu zidaten. Esadazu,

-Irakurri dut.

-Irakurtzeke daukat.

-Irakurtzen ari naiz.

Joan den astean nire lagun batek esan zidan filma oso polita ematen ari direla. Ikustera joango nintzela esan nion. Esadazu,

-Joan naiz.

-Joateke nago.

Gaurko egunkarian irakurri dut udalak esan zuela Bustinzuri kalean hamabi zuhaitz landatuko zituela. Esadazu,

-Landatu ditu.

-Landatzen ari da.

-Datorren astean landatuko ditu.

Esan didate lanpernak oso direla gozoak. Esadazu,

-Probatu ditut.

-Ilgandean probatuko ditut.

-Ez ditut probatuko.

IZENA:.....MAILA:.....

Aldia

Aldiak aditzak adierazten duen ekintza noiz gertatzen den adierazten digu.
Denboraren lerroan, hiru puntu zehazten ditu:

Lehenaldia:

Elurte handia egin zuen goizaldean eta ez ziren malutak urtu, irinezkoak balira bezala geratu ziren gauza guztien gainean, zuhaitz arramak ere zuritasunaren azpian makurraraziaz, eta altzairuan bezala islatu ziren lehen eguzki errainuak, ahul eta ausart.

SARRIONAINDIA, Joseba: *Narrazioak (Sonbreiru baten istorioa)*, Elkar, Donostia, 1984.

Orainaldia:

.....

.....

.....

.....

Geroaldia:

.....

.....

.....

.....

IZENA: MAILA:

Numeroa

Euskaraz, pluralgileak, gehien bat, NOR sintagmaren pluraltasuna adierazteko erabiltzen ditugu.

NORI sintagmak -e- pluralgilea erabiltzen du.

Eta NORK sintagmak -(t)e-

NORK ZERK	NORI ZERI	NOR ZER	ADITZA
<u>Miren eta Jonek</u>	<u>Aneri eta Ikerri</u>	<u>auto berria</u>	<u>erosi</u>
_____	<u>Aneri</u>	<u>Jon eta Miren</u>	<u>joan</u>
<u>Auto zaharrek</u>	<u>trafikoari</u>	<u>kalte</u>	<u>egiten</u>
_____	<u>Aneri eta Ikerri</u>	<u>txostena</u>	<u>gustatu</u>
<u>Mirenek</u>	<u>Ikerri</u>	<u>ustekabe galanta</u>	<u>eman</u>
_____	<u>Ikerri</u>	<u>kanikak</u>	<u>erori</u>

Numeroa

mugagabea

NOR, NORI edo NORK izen-sintagmak mugagabeen doazenean, hau da, ez singularra, ez plurala ez direnean, adizkia bai singularrean, bai pluralean erabil daiteke, kasuen arabera; baina, badirudi, jatorrizko forma singularra dela.

NORK ZERK	NORI ZERI	NOR ZER	ADITZA
<u>Jonek</u>	<u>Aneri eta Ikerri</u>	<u>hainbat gutun</u>	<u>idatzi</u>
_____	<u>Aneri</u>	<u>zenbait lagun</u>	<u>etorri</u>
<u>Mirenek</u>	_____	<u>hamaika gozoki</u>	<u>jan</u>
<u>Jonek</u>	<u>Aneri</u>	<u>bederatzi musu</u>	<u>eman</u>
<u>Ardatzak</u>	_____	<u>makina bat bira</u>	<u>egin</u>